4	2.740.372	2.384.123,64 €
5	2.751.471	2.393.779,77 €
6	2.762.614	2.403.474,18 €
7	2.774.772	2.414.051,64 €
8	2.787.958	2.425.523,46 €
9	2.802.035	2.437.770,45 €
10	2.817.166	2.450.934,42 €

(*) BATEZ BESTEKO TARIFA: 0,87€/bidaiaria

2.4. EKONOMIA- ETA FINANTZA-OREKA

Kontratu berriak, iraunkorra dela bermatze aldera, ustiapenaren oreka ekonomikoari eutsi beharko dio. Hauxe izango litzateke kontratuaren 1. urterako galera-irabazien kontua:

2.4.1. GALERA-IRABAZIEN KONTUA

Galera eta irabazien Kontua	
	1 urte
Diru-sarrerak – OSPrekin	11.445.315
Ustiapeneko diru-sarrerak	2.355.390
Diru-bilketa bidaien arabera	2.355.390
Konpentsazioak zerbitzu publikoaren betebeharrengatik	9.089.924
Gastuak	
Ustiapen-gastuak	9.617.911
Denboraren araberako kostuak	8.069.511
Aktiboen amortizazioak	1.147.638
Aktiboen finantzaketa	107.467
Zerbitzuko langile zuzenak	6.655.107
Ibilgailuen aseguruak	143.136
Zerga-kostuak	16.163
Kostu kilometrikoak	1.473.248
Erregaia/Labaingarriak	1.008.824
Pneumatikoak	84.878
Mantentzea, konponketak eta zaintzea	379.546
Bestelako kostuak	75.152
Geralekuen kanonak:	0
Bidesariak	45.152
Uniformeak.	30.000
Gastu orokorrak (% 13 ustiapen-gasturik gabe)	1.250.328
Ustiapen-zorren finantzaketa	0
Tarte gordina (diru-sarrerak-gastuak)	577.075
Mozkin industrialak (% 6 ustiapen-gasturik gabe)	577.075
Finantzatuko den zorra (tarte gordina—mozkin industrialak)	0

Zerbitzuaren kostuen eta diru-sarreraren balantzearen arabera, kontratua, berez, **EZ DA errentagarria**, eta operadore bat zerbitzua aurreikusitako baldintzetan emateko prest egoteko, administrazioarengandik konpentsazio bat jaso beharko luke ezarri zaizkion zerbitzu publikoaren betebeharrek betetzeko, betiere, honako hauetan ezarritakoarekin bat etorriz: Treneko eta errepideko bidaiarien garraio-zerbitzu publikoei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2007ko urriaren 23ko 1370/2007 (EE) Erregelamendua eta 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora.

3. ERANSKINAK

I. ERANSKINA: EGINGO DIREN TRAFIKOAK

ID_LINEA	ID_RUTA	SENTIDO	AMBITO	RUTA
A2315	2315001I	Ida	Margen Izquierda-UPV	Santurtzi – Portugalete – UPV/EHU
A2315	2315001V	Vuelta	Margen Izquierda-UPV	Santurtzi – Portugalete – UPV/EHU
A2315	2315002I	Ida	Margen Izquierda-UPV	Santurtzi – Portugalete – Sestao (Vía Galindo) UPV/EHU
A2315	2315002V	Vuelta	Margen Izquierda-UPV	Santurtzi – Portugalete – Sestao (Vía Galindo) UPV/EHU
A2315	2315003I	Ida	Margen Izquierda-UPV	Santurtzi – Portugalete – Sestao –Barakaldo - UPV/EHU
A2315	2315003V	Vuelta	Margen Izquierda-UPV	Santurtzi – Portugalete – Sestao –Barakaldo - UPV/EHU
A2315	2315004I	Ida	Margen Izquierda-UPV	Santurtzi – Portugalete – UPV/EHU (Refuerzo)
A2315	2315005I	Ida	Margen Izquierda-UPV	Santurtzi – Portugalete – UPV/EHU (Magisteritza/Magisterio)
A2316	2316001I	Ida	Margen Izquierda-UPV	Sestao – UPV/EHU
A2316	2316001V	Vuelta	Margen Izquierda-UPV	Sestao – UPV/EHU
A2316	2316002I	Ida	Margen Izquierda-UPV	Sestao - UPV/EHU (Directo)
A2316	2316003I	Ida	Margen Izquierda-UPV	Sestao – UPV/EHU (Magisteritza/Magisterio)
A2326	2326001I	Ida	Margen Izquierda-UPV	Gurutzeta/Cruces – Barakaldo - UPV/EHU
A2326	2326001V	Vuelta	Margen Izquierda-UPV	Gurutzeta/Cruces – Barakaldo - UPV/EHU
A2326	2326002I	Ida	Margen Izquierda-UPV	Barakaldo - UPV/EHU
A2326	2326002V	Vuelta	Margen Izquierda-UPV	Barakaldo - UPV/EHU
A2326	2326003I	Ida	Margen Izquierda-UPV	Gurutzeta/Cruces – Barakaldo - UPV/EHU (Magisteritza/Magisterio)
A2326	2326004I	Ida	Margen Izquierda-UPV	Barakaldo - UPV/EHU (Magisteritza/Magisterio)
A2326	2326005I	Ida	Margen Izquierda-UPV	Zorrotza – Gurutzeta/Cruces - Barakaldo - UPV/EHU (Magisteritza/Magisterio)
A2326	2326005V	Vuelta	Margen Izquierda-UPV	Zorrotza – Gurutzeta/Cruces - Barakaldo - UPV/EHU (Magisteritza/Magisterio)
A2336	2336001I	Ida	Margen Izquierda-UPV	Muskiz – UPV/EHU (Directo)
A2336	2336001V	Vuelta	Margen Izquierda-UPV	Muskiz – UPV/EHU (Directo)
A2336	2336002V	Vuelta	Margen Izquierda-UPV	Muskiz – UPV/EHU
A2336	2336003I	Ida	Margen Izquierda-UPV	Muskiz – UPV/EHU (Magisteritza/Magisterio) (Directo)
A3411	3411001I	Ida	Uribe-Kosta	Bilbao – Getxo
A3411	3411001V	Vuelta	Uribe-Kosta	Bilbao – Getxo
A3411	3411002I	Ida	Uribe-Kosta	Bilbao – Getxo – Azkorri
A3411	3411002V	Vuelta	Uribe-Kosta	Bilbao – Getxo – Azkorri
A3411	3411003I	Ida	Uribe-Kosta	Puente Colgante – Getxo (Un Sentido)
A3414	3414001I	Ida	Uribe-Kosta	BILBAO – GETXO (Arbandako Tuneletatik/por Tuneles de Arbanda)
A3414	3414001V	Vuelta	Uribe-Kosta	Bilbao – Getxo (Arbandako Tuneletatik/por Tuneles de Arbanda)
A3422	3422001I	Ida	Uribe-Kosta	Areeta/Las Arenas – Berango (Artea m.g./c.c. Artea)
A3422	3422001V	Vuelta	Uribe-Kosta	Areeta/Las Arenas – Berango (Artea m.g./c.c. Artea)
A3422	3422002I	Ida	Uribe-Kosta	Areeta/Las Arenas – Berango
A3422	3422002V	Vuelta	Uribe-Kosta	Areeta/Las Arenas – Berango
A3422	3422003V	Vuelta	Uribe-Kosta	Areeta/Las Arenas – Berango (c.c. Artea sin pasar por Villamonte)
A3451	3451001I	Ida	Uribe-Kosta	Areeta/Las Arenas – Armintza
A3451	3451001V	Vuelta	Uribe-Kosta	Areeta/Las Arenas – Armintza
A3451	3451002I	Ida	Uribe-Kosta	Areeta/Las Arenas – Armintza – Lemoiz
A3451	3451003V	Vuelta	Uribe-Kosta	Armintza – Andraka – Areeta/Las Arenas
A3471	3471001I	Ida	Uribe-Kosta	Getxo – Gurutzeta/Cruces (Faduratik/por Fadura)
A3471	3471001V	Vuelta	Uribe-Kosta	Getxo – Gurutzeta/Cruces (Faduratik/por Fadura)
A3472	3472001I	Ida	Uribe-Kosta	Getxo – Gurutzeta/Cruces (Areetatik/desde Las Arenas)
A3472	3472001V	Vuelta	Uribe-Kosta	Getxo – Gurutzeta/Cruces (Areetatik/desde Las Arenas)
A3499	3499001I	Ida	Uribe-Kosta	Plentzia (Metro) – Gorliz
A3499	3499001V	Vuelta	Uribe-Kosta	Plentzia (Metro) – Gorliz
A3499	3499002I	Ida	Uribe-Kosta	Plentzia (Metro) – Gorliz (Directo)
A3499	3499002V	Vuelta	Uribe-Kosta	Plentzia (Metro) – Gorliz (Directo)

Ikusi erantsitako PDFan lineen, ibilbideen eta ordutegian xehetasunak.

II. ERANSKINA: BIDAIEN EGUTEGI-LABURPENA

LINEA	IBILBIDEA	ESKOLA EGUNAK EHU								ESKOLA GUZTIRA	ESKOLA EGUNIK GABE						URTEAN GUZTIRA	GABONAK		OSAGARRIAK		BIDAIK GUZTIRA	EKOIZPENA GUZTIRA	ZERBITZUKO ORDUAK		
		Lanegunak	Lagunetako bidaiak	Lanegunak (murr.)	Lagunetako bidaiak (murr.)	Larunbata	Larunbateko bidaiak	Igande eta Jaiegunak	Igande eta Jaiegunak bidaiak		Lanegunak	Lagunetako bidaiak	Larunbata	Larunbateko bidaiak	Igande eta Jaiegunak	Igande eta Jaiegunak bidaiak		ESKOLA GABE GUZTIRA	Egunak	Bidaiak	Egunak				Biidaiak	
A2315	SANTURTZI-PORTUGALETE-UPV/EHU	J E	174	24	30	22	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	132	4.968	0	0	144	144	5.112	92.036,40	3.913,11	
A2316	SESTAO-UPV/EHU	J E	174	10	30	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	1.740	0	0	0	0	1.740	24.647,10	872,77	
A2326	BARAKALDO-UPV/EHU	J E	174	22	30	21	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	4.458	0	0	144	288	4.746	43.092,48	2.404,04	
A2336	MUSKIZ-UPV/EHU	J E	174	10	30	9	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	2.010	0	0	0	0	2.010	50.794,26	1.843,04	
A3411	BILBAO-GETXO-AIZKORRI	J E	190	65	0	0	38	61	47	61	17.535	57	67	13	60	16	60	5.559	23.094	4	196	0	0	23.290	395.402,56	23.920,30
A3414	BILBAO-GETXO (Artxandako tuneletatik)	J E	215	96	0	0	44	60	54	32	25.008	32	65	7	60	9	32	2.788	27.796	4	210	215	645	28.651	497.241,99	27.903,59
A3422	LAS ARENAS-BERANGO	J E	247	30	0	0	51	28	63	28	10.602	0	0	0	0	0	0	0	10.602	4	96	0	0	10.698	113.304,81	7.604,35
A3451	LAS ARENAS-ARMINTZA	J E	205	33	0	0	42	31	52	31	9.679	42	33	9	31	11	31	2.006	11.685	4	98	0	0	11.783	316.504,45	13.719,31
A3471	GETXO-CRUCES (Faduratik)	J E	247	32	0	0	51	32	63	32	11.552	0	0	0	0	0	0	0	11.552	4	96	0	0	11.648	117.457,28	8.739,38
A3472	GETXO-CRUCES (Areetatik)	J E	247	30	0	0	51	30	63	30	10.830	0	0	0	0	0	0	0	10.830	4	90	0	0	10.920	139.884,70	6.372,88
A3499	PLENTZIA-GORLIZ	J E	205	100	0	0	42	94	51	94	29.242	42	96	9	94	12	94	6.006	35.248	4	302	0	0	35.550	268.447,00	13.858,91

GUZTIRA

146.148 2.058.813,03 111.151,69

Jarraian xehatu dira:

- Kontratuaren linea bakoitzeko zerbitzua eman den egun-kopurua, egun-mota eta denboraldiaren xehetasunak.

Linea	Denboraldia	Egun-mota	Egun-kopurua
A2315 - SANTURTZI - PORTUGALETE - UPV/EHU	EHU Eskola-egunak	Laneguna	174,00
A2315 - SANTURTZI - PORTUGALETE - UPV/EHU	EHU Murriztua	Laneguna	30,00
A2315 - SANTURTZI - PORTUGALETE - UPV/EHU	EHU Ez Eskolakoa	Laneguna	22,00
A2316 - SESTAO - UPV/EHU	EHU Eskola-egunak	Laneguna	174,00
A2326 - BARAKALDO - UPV/EHU	EHU Eskola-egunak	Laneguna	174,00
A2326 - BARAKALDO - UPV/EHU	EHU Murriztua	Laneguna	30,00
A2336 - MUSKIZ - UPV/EHU	EHU Eskola-egunak	Astelehenetik ostegunera	141,00
A2336 - MUSKIZ - UPV/EHU	EHU Eskola-egunak	Ostirala	33,00
A2336 - MUSKIZ - UPV/EHU	EHU Murriztua	Laneguna	30,00
A3411 - BILBAO - GETXO - Aizkorri	Negua	Jaieguna	47,00
A3411 - BILBAO - GETXO - Aizkorri	Negua	Laneguna	190,00
A3411 - BILBAO - GETXO - Aizkorri	Negua	Larunbata	38,00
A3411 - BILBAO - GETXO - Aizkorri	Uda	Jaieguna	16,00
A3411 - BILBAO - GETXO - Aizkorri	Uda	Laneguna	57,00
A3411 - BILBAO - GETXO - Aizkorri	Uda	Larunbata	13,00
A3411 - BILBAO - GETXO - Aizkorri	Gabonak (24-31)	Laneguna	2,00
A3411 - BILBAO - GETXO - Aizkorri	Gabonak (25 -1)	Jaieguna	2,00
A3414 - BILBAO - GETXO (Artxandako tuneletatik/por túneles de Artxanda)	Negua	Jaieguna	54,00
A3414 - BILBAO - GETXO (Artxandako tuneletatik/por túneles de Artxanda)	Negua	Laneguna	215,00
A3414 - BILBAO - GETXO (Artxandako tuneletatik/por túneles de Artxanda)	Negua	Larunbata	44,00
A3414 - BILBAO - GETXO (Artxandako tuneletatik/por túneles de Artxanda)	Uda	Jaieguna	9,00

de Artxanda)			
A3414 - BILBAO - GETXO (Artxandako tuneletatik/por túneles de Artxanda)	Uda	Laneguna	32,00
A3414 - BILBAO - GETXO (Artxandako tuneletatik/por túneles de Artxanda)	Uda	Larunbata	7,00
A3414 - BILBAO - GETXO (Artxandako tuneletatik/por túneles de Artxanda)	Gabonak (24-31)	Laneguna	2,00
A3414 - BILBAO - GETXO (Artxandako tuneletatik/por túneles de Artxanda)	Gabonak (25 -1)	Jaieguna	2,00
A3422 - Areeta/Las Arenas - BERANGO	Bakarra	Jaieguna	63,00
A3422 - Areeta/Las Arenas - BERANGO	Bakarra	Laneguna	247,00
A3422 - Areeta/Las Arenas - BERANGO	Bakarra	Larunbata	51,00
A3422 - Areeta/Las Arenas - BERANGO	Gabonak (24-31)	Laneguna	2,00
A3422 - Areeta/Las Arenas - BERANGO	Gabonak (25 -1)	Jaieguna	2,00
A3451 - Areeta/Las Arenas - Armintza	Negua	Jaieguna	52,00
A3451 - Areeta/Las Arenas - Armintza	Negua	Laneguna	205,00
A3451 - Areeta/Las Arenas - Armintza	Negua	Larunbata	42,00
A3451 - Areeta/Las Arenas - Armintza	Negua Instituturik gabe	Jaieguna	11,00
A3451 - Areeta/Las Arenas - Armintza	Negua Instituturik gabe	Laneguna	42,00
A3451 - Areeta/Las Arenas - Armintza	Negua Instituturik gabe	Larunbata	9,00
A3451 - Areeta/Las Arenas - Armintza	Gabonak (24-31)	Laneguna	2,00
A3451 - Areeta/Las Arenas - Armintza	Gabonak (25 -1)	Jaieguna	2,00
A3471 - GETXO - Gurutzeta / Cruces (Faduratik / Por Fadura)	Bakarra	Jaieguna	63,00
A3471 - GETXO - Gurutzeta / Cruces (Faduratik / Por Fadura)	Bakarra	Laneguna	247,00
A3471 - GETXO - Gurutzeta / Cruces (Faduratik / Por Fadura)	Bakarra	Larunbata	51,00
A3471 - GETXO - Gurutzeta / Cruces (Faduratik / Por Fadura)	Gabonak (24-31)	Laneguna	2,00
A3471 - GETXO - Gurutzeta / Cruces (Faduratik / Por Fadura)	Gabonak (25 -1)	Jaieguna	2,00
A3472 - GETXO - Gurutzeta / Cruces (Areetatik/desde Las	Bakarra	Jaieguna	63,00

Arenas)			
A3472 - GETXO - Gurutzeta / Cruces (Areetatik/desde Las Arenas)	Bakarra	Laneguna	247,00
A3472 - GETXO - Gurutzeta / Cruces (Areetatik/desde Las Arenas)	Bakarra	Larunbata	51,00
A3472 - GETXO - Gurutzeta / Cruces (Areetatik/desde Las Arenas)	Gabonak (24-31)	Laneguna	2,00
A3472 - GETXO - Gurutzeta / Cruces (Areetatik/desde Las Arenas)	Gabonak (25 -1)	Jaieguna	2,00
A3499 - PLENTZIA - GORLIZ	Negua	Jaieguna	51,00
A3499 - PLENTZIA - GORLIZ	Negua	Laneguna	205,00
A3499 - PLENTZIA - GORLIZ	Negua	Larunbata	42,00
A3499 - PLENTZIA - GORLIZ	Uda	Jaieguna	12,00
A3499 - PLENTZIA - GORLIZ	Uda	Laneguna	42,00
A3499 - PLENTZIA - GORLIZ	Uda	Larunbata	9,00
A3499 - PLENTZIA - GORLIZ	Gabonak (24-31)	Laneguna	2,00
A3499 - PLENTZIA - GORLIZ	Gabonak (25 -1)	Jaieguna	2,00

III. ERANSKINA: PLANOAK

Ikusi erantsitako PDFa

IV. ERANSKINA. ATXIKITAKO IBILGAILUEN EZAUGARRIAK

1 HIRIKO AUTOBUS HIBRIDOAK ZORU BAXUKOAK -I- MOTA

Agiri honen xedea da bastidorearen eta karrozeriaren funtsezko zehaztapen teknikoak ezartzea, Bizkaibusen flotarako, erosiko diren autobusetan:

- Beheko solairu jarraitua.
- I mota.
- Dimentsioak: 12 metro
- Hiriko eta hiri inguruko zerbitzurako.

a) Legezko baldintzak

Zehazki, honako baldintza hauek beteko dituzte:

- 36.03 Erregelamendua, 2001eko azaroaren 20ko Europako Parlamentuaren 2001/85/CE Zuzentaraua (bidaiarien garraioan erabilitako ibilgailuei aplikatu beharreko xedapen bereziak), 107 Erregelamendua, eta indarrean dauden ondorengo aldaketak.
- Nazio Batuen Europako Batzorde Ekonomikoaren 66. Erregelamendua – Bidaiariak garraiatzeko dimentsio handiko ibilgailuak homologatzeari buruzko xedapen uniformeak, superegituraren erresistentziari dagokionez.
- Nazio Batuen Europarako Batzorde Ekonomikoaren UN-ECE R51 Erregelamendua (gutxienez lau gupil dituzten motordun ibilgailuen homologazioari buruzko agindu uniformeen gaineko erregelamendua), zaratari dagokionean.
- Euskal Autonomia Erkidegoko 126/2001 eta 68/2000 Dekretuak (garraioko irisgarritasun baldintzei buruzko arau teknikoak). 1544/2007 Errege Dekretua, ezintasuna duten pertsonentzako garraiobideak erabiltzeko eta eskuratzeko irisgarritasuneko eta diskriminaziorik ezeko oinarritzko baldintzak arautzen dituena.
- Eskatu daitezkeen igorpen-maila: Euro VI.
- Bateragarritasun elektromagnetikoa. Instalaturako osagai elektroniko guztiek egiaztatuko dute beren bateragarritasun elektromagnetikoa, 72/245/CEE Zuzentaruaren ezarritako baldintzetan, 95/54 bertsioaren arabera.

- 70/157/ CEE Zuzentaraua eta hurrengo aldaketak (motordun ibilgailuaren soinu maila) beteko dira.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2007ko irailaren 5eko 2007/46/CE Zuzentaraua; horren bidez, motordun ibilgailuak eta ibilgailu horietarako atoiak, sistema, osagai eta unitate tekniko independenteak homologatzeko esparrua sortzen da.

Eta autobusa matrikulatzeko unean aplikagarriak diren gainerako legezko xedapenak.

b) Erosiko diren ibilgailuen ezaugarri fisikoak:

- Beheko solairu jarraituko autobusak deritzan horiek izango dira ibilgailuak.
- Galtzadatik autobusaren lurzorura dagoen altuera 340 mm-koa edo baxuagoa izan beharko da.
- Txaxisaren instalazioak bastidorearen eta karrozeriaren profilen gainetik jarriko dira, eta kanalizazio edo azpil batzuekin babestuko dira.
 - Dimentsioak: Luzera: 12 m (11,5 – 13)
 - Gehieneko zabalera: 2,55 m
 - Gehieneko altuera: 3,40 m
- Biratzeko kanpoko diametroa < 25 m
- Biratzeko barruko diametroa < 11 m Ateak: 2.
- Autobuseko edukiera, gutxieneko plazak.
 - Eserlekua duten plazen kopurua: 28
 - Gurgildun aulkia duten erabiltzaileentzat bi espazio, kontrako martxan.
 - Hiru egoera posibleetan (gurgildun aulkian doazen mugikortasun murriztuko 2 pertsona, gurgildun aulkian doan mugikortasun murriztuko pertsona 1 eta gurgildun aulkian doan mugikortasun murriztuko pertsona gabe) egongo den pertsona-kopuru osoaren zehaztasunak erantsiko dira. Autobuseko plaza kopuru osoa ezingo da inola ere 90 baino baxuagoa izan, gidaria barne.

- Era berean, ibilgailuaren sarreran dagoen itsasgarrian zehaztu beharko da edukiera, egoera horietako bakoitzean.

c) Ezaugarri mekanikoak.

- Ibilgailu hibridoa: Errekuntzako motorraren eta trakzio elektrikokok sistemaren potentziak autobusak eskuratzeko plegu teknikoetan definituko dira.
- Bidezkoa bada, kanbio kutxa automatikoa, retarder barne. Retarder-a automatikoa izango da, eta bere eraginkortasuna balazta pedalarekin modulatu da. Ezingo da etengailu, palanka edo bestelakoekin indargabetu. Autobusa geldi dagoenean kate zinematikoa deskonektatzeko sistema bat izango . Balaztek balaztatze jokia automatikoki erregulatzeko sistema bat edukiko dute, erregistro eta guzti, higadura aztertze.
- Disko balaztak gurpil guztietan. Gelditzeko balazta martxan egongo da atek zabalik daudenean, eta ibilgailua % 5eko goranzko eta beheranzko maldan eutsi ahalko du.
- ABS balazten sistema antiblokeorako ekipamendua eta ASR motako edo antzeko trakzio kontrolerako edo labainduren aurkako sistemak. Beharrezko aire hartuneak egongo dira ibilgailuaren ezkerreko aldean, arauzko neurketak egiteko beharrezko funtzionalitate eta guzti, ibilgailuen azterketa teknikoetan (IAT) balaztak egiaztatze aldera.
- Aurreko eta atzeko ardatza indargetze eta guzti, egonkortze barrak eta balbula nibelatzaileak. Kneeling-a izango du (eskuinaldeko belaunikatzea).
- Suspentsio pneumatiko integrala, autobusaren altuerari eutsiz lurzoruarekiko, karga egoera edozein dela ere. Bidaiariaren erosotasuna bermatu beharko da, lurzoruaren irregulartasunen ziozko mugimenduak indargetuz, ISO 2631 - 1978 arauaren arabera.
- Ibilgailuak altuera igotzeko sistema bat edukiko du, irregulartasunak libratu ahal izateko. Sistema hori gidariak berak aktibatu ahalko du, ibilgailua geldi dagoela edo abiadura baxua duela, atek itxita.
- Abiadura mugatzailea, 92/6/CEE eta 92/24/CEE arauen arabera, gehienez 80 km orduko abiadura muga ezarrita. Berogailu guztietan beharrezko erregistroak egon beharko dira, paneleko azalera osoa

erraz, azkar eta eraginkortasunez garbitu ahal izateko. Ahal dela, gailu eraigarria eduki beharko dute.

- Lubrifikazio zirkuituan motorrerako olioaren maila etengaberako sistema automatikoa egongo da, dosifikatzeko gordailu eta guzti. Gordailuaren gaitasun erabilgarria gutxienez 10 litrokoa izango da.
- Direkzioa, asistentzia hidraulikoa edo elektrikoa duena.
- Ibilgailua entregatzean, esleipendunak ziurtagiria aurkeztu beharko du, ardatzak ondo lerrokatuta eta paralelo daudela egiaztatzeko, behin ibilgailuaren karrozeria amaituta.

d) Segurtasun elementuak.

Arauzko elementu guztiak jarriko dira, bai eta honako hauek ere:

Ibilgailuari dagokionez

- Luzetarako bi isurki egongo dira sabai gainean itsatsita, ura alboko leihoetara eta haizetakora eror ez dadin atal egokian jarrita. Diseinuari esker, ibilgailua lur lauan dagoenean ura bertan geratzea saihestuko da. Isurki horien ordez, beste edozein eraikuntza irtenbide aplikatu ahalko da, isurkien prestazioak betetzen baditu.
- Ibilgailuaren argi guztiak, bai kanpokoak, bai barrukoak, LED teknologikoak izango dira. Gurutze argiak, errepide argiak, galibo argiak, balazta argiak eta norabide argiak xenonezkoak edo halogenoak izan ahalko dira.
- Gidariak abiaraztea blokeatzeko sistema, motor estalkiak zabalik badaude.
- Kanbio kutxa edukiz gero, segurtasun sistema bat egongo da motorra ez dadin arrankatu abiaduraren bat sartuta badago.
- Kanpotik zabaldu eta ixtea aukera ematen duen aurreko atea, ezkutuko botoien bidez. Atea kanpotik irekitzean, kortesiako barruko argia piztu beharko da.
- Abiadura sartuta eta geratzeko balazta martxan edo atea irekita, motorra ralentian egongo da azeleragailua sakatzean, ibilgailua lekuz aldatu gabe.

- Ate irekiko larrialdiak, Warning deritzanak, aginte mahaian dagoen etengailuaren bidez jarri beharko dira.
- Atzeranzko burrunbagailua (alarmaren soinua erregulatu egin ahalko da).
- Takografo digital elektronikoa, anplifikadore eta guzti.
- Maldan abiarazten laguntzeko sistema (Hill holder).
- Gidaritza kontrolatzeko sistema. Ibilgailuak FMS datuak hartzeko sistema bat edukiko du. Datuak, gutxienez, kontsumoei, balaztaren erabilerari eta abiadura edo norabidearen aldaketa bortitzei buruzkoak izango dira.
- Ibilgailuak sistema etilometriko bat edukiko du (alcolok edo antzeko prestazioak dituen ekipoa).
- Diagnostiko sistema egongo da, autobusa entregatzeko unean eskuragarri, eta doako eguneraketak egingo dira ibilgailuaren bizitza osoan zehar (aurreikuspenen arabera, 10 urte eta erdi). Diagnostiko sisteman energia biltzeko sistema bat ere egongo da.

Erabiltzaileei dagokienez.

- Ateak zabalik ibilgailua blokeatzeko aukera eta botoien bidez ateak irekitzea saihesteko mekanismoa orduko 5 km-tik gorako abiaduran.
- Anti-abandono sistema, atea ez dadin kanpotik itxi, esku balazta jarrita ez badago.
- Sentikortasuna ate guztietan eta ezintasuna duten pertsonentzako maldan.
- Ateen blokeoa ibilgailua martxan dela.
- Telebista zirkuitua maniobra kontrolatzeko; kamera atzerantz eta irteerako atean.
- Barruko apaindura. Argia ateetan, era egokian ikusi ahal izateko sartzeko eta irteteko ateak.
- Larrialdi botoiak. “Ate librea eskuz irekitzeko” sistema, botoiak dituen aginte mahaian ere, eta ibilgailua blokeatu ezin duena horiek sakatzean, baldin eta autobusa orduko 3-7 km-ko abiaduran edo altuagoan badago.

e) Elementu osagarriak.

Aire girotua:

- Lurrunaren aurkako gailua aurrean (orduak 16.000 kilokaloria inguru), haizetakoetara eta alboko leihora irteten dena. Gailuak aire girotuko sistema bat edukiko du txertatuta.
- Aire berritzeko sistemak ibilgailuaren barruko aire kutsatua ebakutzeko aukera eman beharko du, orduan 10 aldiz.
- Klimatizagailua (hotza/beroa). Polenaren aurkako iragazkia.
- Berogailu konbektoreak.
- 2 tranpa sabaian, orokorrean.

Beste elementu osagarri batzuk

- Ibilgailuaren aurreko aldean eta kanpotik erraz sartzeko posizioan eta behar bezala seinaleztatuta, larrialdi kasuetarako eta atoian eraman behar denerako, bi sarrera independente egongo dira, aire konprimatukoak. Sarrera horiek akoplamendu azkarren bidez erabili ahalko dira, bai balazta eta desblokeo zirkuituak kargatzeko, bai zirkuitu pneumatiko guztia kargatzeko.
- Erregaia eta urea beteta daudela adierazteko erregistroetan ataka bat egon beharko da, zabalera aski duena, eta drainatze sistema bat isurietarako. Halaber, itxitura erresistente bat egon beharko da.
- Segurtasun aginte nagusi bat egon behar da gidariaren postuan, ezin hobeto identifikatuta eta dagokion funtzionamendu modua adierazita. Hala, piztean, honetarako ere balio beharko du:
 - Motorra gelditzeko
 - Erregai elikadura mozteko
 - Bateria deskonektatzeko
 - Tentsio altuko hornidura elektronikoa eteteko.
 - Larrialdi argiak automatikoki konektatzeko
 - Gidariaren atea ireki ahal izateko.
- Beharrezko tranpak edukiko ditu, dimentsio eta irekiera angulu nahikoekin, mantendu edo/eta berrikusi behar diren elementuetara erraz sartu ahal izateko

f) Barruko pintura eta apaindura

Bizkaiko Foru Aldundiak autobusaren barrualdeko itxurarako zehaztutako eskuliburuak beteko dira, elementuak eta horien ezaugarriak banatzeko.

Pinturak eta estaldurak

- Pintura: BIZKAIBUSen irudi korporatiboa islatzen duten koloreak. BFAk ezarritako ezaugarrien arabera.
- Pinturaren ezaugarriek aukera emango dute bertan pintadarik eginez gero, merkatuan dauden produktu kimikoekin ezabatu ahal izateko pintada horiek, autobusa hondatu gabe.

Barruko apaindura:

- Lotura biribilduak, izkina bizirik egon ez dadin.
- Ateen estribuetara sartzeko moldurak eta korridorearen barruko moldurak horiz edo nabarmentzen den kolorean.
- Alboetako leiho eraisgarriak, karratutxoan itxitura sartuta. Gutxienez bi albo bakoitzean.
- Labainduren aurkako lurzorua, Helios Cerium 3737 ehundura, Gerflor
- Isolamendua. Intsonorizatzeko goma aparra, berez itzaltzen dena, sabaian eta alboetan. Isolamendu termiko eta akustikoa motor inguruan, kanbio kutxan eta zarata transmisio handiena dagoen lekuan. Motorraren konpartimenduan, gainera, hodiak eta drainatzeak egongo dira, hondakinak, olioak, erregaia eta ura ebakatu ahal izateko.
- Horiz seinalizatuko dira aurreko eta atzeko ateetako ekorketa guneak.

g) Altzariak, kobratze sistema, osagarriak, babesgarriak eta erabiltzaileen botoiak.

Bizkaiko Foru Aldundiak autobusaren barrualdeko itxurarako zehaztutako eskuliburuak beteko dira, elementuak eta horien ezaugarriak banatzeko.

Altzariak.

- Gidariaren eserleku pneumatikoa, eta, bertan, bizkarra bermatzekoa, burua bermatzekoa, eserlekuaren aginteak, hiru puntuko uhala, altuera erregulatzeko modukoa eta inklinazio eta altueraren arabera erregulatzeko den bizkarraldearekin zentratua. Eserleku erregulagarria 1,90 eta 1,60 bitarteko altuera baliodunean. Dirua uzteko erretilua duen atea. Inklinazio eta altueraren arabera erregulatzeko den bizkarraldea. Bolantearen diametroa gehienez ere 450 mm-koa izango da.
- Bidaiarien eserlekuak, hiri motakoak, tapizatuak, barrubigunak eta atzeko karkasadunak. Eserlekuak berdez tapizatuta egongo dira (agora tapizeria eredu), berde argiz margotutako buru euskarriarekin, mugikortasun murriztuko pertsonentzako 4 eserlekuen kasuan salbu. Azken horiek urdinak izango dira (agora tapizeria eredu).
- Altzairu herdoilgaitzezko barrak ibilgailuan zehar, heltzeko zailtasunak eragiten dituzten espazioak sor ez daitezten.
- Eserlekuen heldulekuak, barruko itxuraren eskuliburuan ezarritakoaren arabera.
- Botoiak egongo dira barruko itxuraren eskuliburuan ezarritakoaren arabera banatuta. Botoien euskarriak Braillean aukera osagarria ere edukiko du, eta erabiliko diren koloreak barruko itxuraren eskuliburuan zehaztutakoak izango dira.
- Beira ilunak edo tindatuak.
- Gidaria ez itsutzeko pertsiana mekanikoak.

Idazkunak eta seinaleak.

- Eskatutako geldialdia: Aurreko altzarian txertatuta euskaraz eta gaztelaniaz (ordena horretan), eta, era berean, aginte mahaiko tinbrearekin konektatuta.
- Kanpoko idazkun elektronikoak, led erakoak, anbar kolorekoak, pantaila zatitzeko eta mugitzen diren testuak erakutsi ahal izateko:
 - Aurrealdekoa: linearen zenbakia eta izena.
 - Atzealdekoa: 4 digiturako.

- Albokoa eskuineko aldean: testurako.

Aurrealdeko eta atzealdeko letraren tamaina gutxienez 250 mm-koa izango da, eta albokoa, aldiz, gutxienez 140 mm-koa. Kontsola edukiko du gidariaren postuan, ibilbidearen eta norabidearen gaineko informazioa aldatzeko.

- Informazio guztia euskaraz eta gaztelaniaz (ordena horretan) egon beharko da. Bizkaibuseko liburuxkak banatzeko kutxak, BFAk emandako ezaugarrien arabera.
- Metakrilatozko bi euskarri jarriko dira oharrak bertan uzteko (barruko itxuraren eskuliburuan ezarritakoaren arabera).

Kobratzeko sistemak, posizioa, eta abar.

- Pantailentzako aurre instalazioa bi gunetan, errefuertzat eta guzti, eta hodia eta gida jarrita Ustiapenaren Laguntza Sistemaren koadrora arte.
- Aurre instalazioa CUBE ekipamendurako Ustiapenaren Laguntza Sistema + Txartelak bertsioan, zehaztapenen arabera, ekipo honen gaineko aurre instalazio guztia zentralizatuta eta Ustiapenaren Laguntza Sistema + txartelak sistemen prozesuko unitate nagusi bihurturik. Nahi izanez gero, CPU bat jarriko da
- TFT pantailak muntatzeko. Sistemaren periferiko desberdinen arteko lotura Ethernet eta RS-485 bidez egingo litzateke, xede panelekin integratzeko. TFT pantaila bat instalatuko da autobus bakoitzean, haren aurrealdean
- 4 bideozaintza kamera aurre instalatuko dira, aginte tauletara konektatuta.
- 4 IP kamera instalatuko dira bideozaintzarako, eta zuzenean konektatuko dira CUBEekin, switch POE baten bidez.
- Aurreko eta atzeko balidatzaileak, ekipora Ethernet bidez konektatuta. Balidatzaileak 2 izango dira, gehi mahaian eskuragarri dagoena.
- WIFI sistemaren aurre instalazioa, bidaiarientzat.
- Ibilgailuan USB hartune bidez telefono mugikorak kargatzeko gutxienez 10 gailu egongo dira. Gidariaren gunean 2 unitate egongo dira. Barruko itxuraren eskuliburuan zehaztutakoa beteko da kolorea, seinaleztatzeko modua eta banaketa ezartzean.

Larrialdietan erabili beharreko elementuak.

- Beirak apurtzeko mailuak, altzairuzko zirga dutenak, mailua eta euskarria (lapurreten aurkako sistema) gorriz lotuta.
- 2 su itzalgailu, 6 kg-koak, homologatuta, ABC hautsezkoak, 21A/113B motakoak.
- Motorraren konpartimenduan dauden suteak antzeman eta itzaltzeko sistema.
- Lehen laguntzarako botikina.
- Larrialdi kasuetan jarduteko eta ebakutzeko seinaleztatze sistema.

h) Irisgarritasuna.

- Bi malda independente jarri beharko dira mugikortasun murriztua duten pertsonak autobusera sartzeko.
 - Malda automatiko bat, seinale akustikoa eta argia ere badituena, martxan dagoen bitartean, eta barruko eta kanpoko geldialdi tinbrea.
 - Eskuz aktibatuzko malda osagarri bat, malda automatikoarekiko guztiz independentea (ez dute elementurik partekatuko). Eskuz aktibatuko den malda hori aurreko atean edo atzeko atean egon ahalko da.
- Malda automatikoa (soliba motakoa) fisikoki babesteko sistemak sartu beharko dira, ibilgailuaren azpialdean soldatuta, kanpotik, oztopo txikiekin edo lurrarekin kolperik hartu ez dadin eta, beraz, autobusa hondatu ez dadin, bai eta hausaren, lokatzaren eta uraren aurka babestu dadin.
- Maldaren funtzionamendua:
 - Beti funtzionatzen dute aparkatzeko balazta martxan dagoela eta atea itxita daudela.
 - Atzeko atea ixtean, malda jasotzen da.
 - Balidatzeko etengailua eta gidariarentzako argi seinalea izango ditu.
 - Segurtasun egokia, autobusa ez dadin lekuz mugitu malda lan posizioan dagoela.
- Eserlekurik gabeko espazio bat ere egon behar da, gurpildun bi aulki jartzeko. Ahal dela, erdiko plataforman egongo da, martxaren norabidearen kontra, eta indarreko araudia betez. Gainera, berez bil daitezkeen uhalak izango ditu, bai eta ken daitezkeen beso euskarriak

edo albo babesgarriak ere. Espazio horiek lurzoruan identifikatuta egon beharko dira, piktograma bidez (safebus zoladuraren antzera).

- Gurpildun aulkietan dauden bidaiariak sartzeko ate guztietatik beraientzat gordetako espaziora arte egin beharreko ibilbidea bidaiari horientzako pasatzeko modukoa izango da. Ibilbide horretan, beraz, ezingo da inolako mailarik edo oztoporik egon, eta gutxienez 800 milimetroko zabalera duen pasabidea utzi beharko da, aulkia erraz mugitu dadin.
- Gurpildun aulkiak sartzeko ateen zabalera librea 1.000 milimetrokoa edo altuagoa izan beharko da. Atean barrarik badago, gutxienez alboetako batean 800 milimetroko espazio librea geratu beharko da.
- Kneeling-sistema edukiko du (eskuinaldeko belaunikatzea, ibilgailua geldi eta atea itxita daudenean soilik funtzionatzen duena), eta automatikoki jarriko da martxan, atea zabaltzeko eskatzean. Nolanahi ere, kneelinga bertan behera utzi ahalko du gidariak. Ibilgailuaren blokeo sistema ere egongo da, kneelinga aktibatuta dagoela.
- Galtzadatik autobuserako altuera, gutxienez ateetako batean, gehienez 250 mm-koa izango da, kneeling-a aktibatuta.
- Mugikortasun murriztuko pertsonentzako lehentasunekoak diren 4 eserleku egongo dira, ateetatik hurbil, zorro horizontal bidez identifikatuta, beso euskarri eraisgarri eta guzti, behar bezala seinaleztatuta eta tinbre eta geldialdi seinaleetara iristeko moduan, urdinez tapizatuta (agora eredu), material lauan eta gaineko eserlekuen desberdin. Eserleku horiek ezingo dira egon gurpilen pasabideetan, eta ezingo dute izan sartzeko mailarik.
- Sartzeko ateetan argi/soinu mekanismo bat egon beharko da, karrankaria ez dena, komunikatzeko zailtasunak dituzten pertsonen sarbide horren egoera zehatza zein den jakin dezaten.
 - Barruko itxurari buruz BFAk emango duen eskuliburuko irisgarritasun elementuen atalean ezarritakoa beteko da.

2 AUTOBUS HIBRIDO, ZORU BAXUKOA, II LOW ENTRY MOTA

Agiri honen xedea da bastidorearen eta karrozeriaren funtsezko zehaztapen teknikoak ezartzea, Bizkaibusen flotarako, erosiko diren autobusetan:

- Zoru baxua LOW ENTRY II mota.
- Dimentsioak: 12 metro
- Hiriarteko eta hiri inguruko zerbitzua emateko xedea

a) Legezko baldintzak

Zehazki, honako baldintza hauek beteko dituzte:

- 36.03 Erregelamendua, 2001eko azaroaren 20ko Europako Parlamentuaren 2001/85/CE Zuzentaraua (bidaiarien garraioan erabilitako ibilgailuei aplikatu beharreko xedapen bereziak), 107 Erregelamendua, eta indarrean dauden ondorengo aldaketak.
- Nazio Batuen Europako Batzorde Ekonomikoaren 66 Erregelamendua – Bidaiariak garraiatzeko dimentsio handiko ibilgailuak homologatzeari buruzko xedapen uniformeak, beren superregituraren erresistentziari dagokionez.
- Nazio Batuen Europako Batzorde Ekonomikoaren 80. Erregelamendua – Bidaiariak garraiatzeko dimentsio handiko ibilgailuak eta horien eserlekuak homologatzeari buruzko preskripzio uniformeak, eserlekuen eta horien ainguraketen erresistentziari dagokionez.
- Nazio Batuen Europako Batzorde Ekonomikoaren UN-ECE R51 Erregelamendua (gutxienez lau gurpil dituzten motordun ibilgailuen homologazioari buruzko agindu uniformeen gaineko erregelamendua), zaratari dagokionean.
- Euskal Autonomia Erkidegoko 126/2001 eta 68/2000 Dekretuak (garraioko irisgarritasun baldintzei buruzko arau teknikoak). 1544/2007 Errege Dekretua, ezintasuna duten pertsonentzako garraio bideak erabiltzeko eta eskuratzeko irisgarritasuneko eta diskriminaziorik ezeko oinarritzko baldintzak arautzen dituena.
- Eska daitekeen isuri maila: Euro VI.
- Bateragarritasun elektromagnetikoa. Instalaturako osagai elektroniko guztiek egiaztatuko dute beren bateragarritasun elektromagnetikoa, 72/245/CEE Zuzentaruaren ezarritako baldintzetan, 95/54 bertsioaren arabera.
- 70/157/ CEE Zuzentaraua eta hurrengo aldaketak (motordun ibilgailuaren soinu maila) beteko dira.

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2007ko irailaren 5eko 2007/46/CE Zuzentaraua; horren bidez, motordun ibilgailuak eta ibilgailu horietarako atoiak, sistema, osagai eta unitate tekniko independenteak homologatzeko esparrua sortzen da.

Eta autobusa matrikulatzeko unean aplikagarriak diren gainerako legezko xedapenak.

b) Erosiko den ibilgailuaren ezaugarri fisikoak:

- Zoru baxuko, Low Entry, autobus motako ibilgailu bat izango da, ibilgailutik igo eta jaisteko ate arteko eskailera-mailarik gabekoa. Atzeko atetik aurrera eskailera-mailak eduki ahal izango ditu.
- Galtzadatik autobusaren lurzorura dagoen altuera 340 mm-koa edo baxuagoa izan beharko da.
- Txisaren instalazioak bastidorearen eta karrozeriaren profilen gainetik jarriko dira, eta kanalizazio edo azpil batzuekin babestuko dira.
- Dimentsioak:
 - Luzera: 12 m (11,5 - 13)
 - Gehieneko zabalera: 2,55 m
 - Gehieneko altuera: 3,40 m
- Biratzeko kanpoko diametroa < 25 m
- Ateak: 2
- Autobuseko edukiera, gutxieneko plazak.
 - Eserlekua duten plazen kopurua: 40
 - Gurpildun aulkia duten erabiltzaileentzat bi espazio, kontrako martxan.
 - Hiru egoera posibleetan (gurpildun aulkian doazen mugikortasun murriztuko 2 pertsona, gurpildun aulkian doan mugikortasun murriztuko pertsona 1 eta gurpildun aulkian doan mugikortasun murriztuko pertsona gabe) egongo den pertsona-kopuru osoaren zehaztasunak erantsiko dira. Autobuseko plaza kopuru osoa ezingo da inola ere 70 baino baxuagoa izan, gidaria barne.
 - Era berean, ibilgailuaren sarreran dagoen itsasgarrian zehaztu beharko da edukiera, egoera horietako bakoitzean.

Ezaugarri mekanikoak.

- Ibilgailu hibridoak: Errekuntzako motorraren eta trakzio elektrikokok sistemaren potentziak autobusak eskuratzeko plegu teknikoetan definituko dira.
- Bidezkoa bada, kanbio kutxa automatikoa, retarder barne. Retarder-a automatikoa izango da, eta bere eraginkortasuna balazta pedalarekin modulatu da. Ezingo da etengailu, palanka edo bestelakoekin indargabetu. Autobusa gelditu dagoenean kate zinematikoa deskonektatzeko sistema edukiko du.
- Balaztek balaztatze joko automatikoki erregulatzeko sistema bat edukiko dute, erregistro eta guzti, higadura aztertze.
- Disko balaztak gurrpil guztietan.
- Gelditzeko balazta martxan egongo da atek zabalik daudenean, eta ibilgailua % 5eko goranzko eta beheranzko maldan eutsi ahalko du.
- ABS balazten sistema antiblokeorako ekipamendua eta ASR motako edo antzeko trakzio kontrolerako edo labainduren aurkako sistemak.
- Beharrezko aire hartuneak egongo dira ibilgailuaren ezkerreko aldean, arauzko neurketak egiteko beharrezko funtzionalitate eta guzti, ibilgailuen azterketa teknikoetan (IAT) balaztak egiaztatze aldera.
- Aurreko eta atzeko ardatza indargetze eta guzti, egonkortze barrak eta balbula nibelatzaileak. Kneeling-a izango du (eskuinaldeko belaunikatzea).
